

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

3 positibo berri 1.612 hildako  
2.312 positibo guztira\* 6 UCIn

### NAFARROAN

9 positibo berri 528 hildako  
5.460 positibo guztira 1 UCIn

\*Hernanin 66 Astigarragan 21

Sendatuak EAEn:4.312 Naf: 9.457

## Bihar irekiko da Astigarragako igerilekua, aforoa mugatua izango du eta aurrez hitzordua eskatu behar da

Ateak irekiko ditu bihar Astigarragako igerilekuak, zenbait segurtasun neurri eta baldintzekin. Aforoa mugatua dela jakinarazi du Udalak, eta gainera, aurrez hitzordua eskatu beharko da «lursailaren erreserba egiteko».

### ASTIGARRAGA IGERILEKUA

Bihar zabalduko da Astigarragako igerilekua, zenbait segurtasun neurri eta baldintzekin. Gainera, aforoa mugatua izango da, eta jadanik irekita dago hitzordua eskatzeko epea, «lursailaren erreserba egiteko». Astigarragako Udalaren webgunean dagoen aplikaziotik eskatu daiteke hitzordua.

Aipatu moduan, igerilekuko ateak ireki dituzte, baina egungo egoera kontutan hartuta, hainbat baldintza ezarri dituzte, segurtasuna bermatzeko.

Igerilekura joan aurretik, lurzati bat erreserbatzeko hitzordua eskatu behar da udaleko webgunean dagoen aplikazioaren bidez, «lurzatiaren erreserbek 3 orduko

iraupena izango dute». Eta bi motatako erreserbak egongo dira; indibidualak (pertsona bakarra) eta familiarrak (2-5 pertsona).

Igerilekuaren gehieneko edukiera mugatuko da, hori dela eta, igerileku txikian soilik 4 urte bitarteko haurrek egon ahal izango dute. Udalak azaldu du, 5 eta 8 urte bitarteko igerileku haundian egon beharko dutela, heldu batekin. Horrez gain, igerileku txikian 12 pertsona sartu daitezke, eta haundian berriz 93.

Igerilekuko aldagela eta armairuak ezin izango dira erabili, itxita egongo baitira. Hori horrela, Udalak gomendatu du «beharrezkoa dena soilik eramatea».

Aurten gainera, ez da igerileku ikastarorik izango, egoerak hala behartuta. Eta 12 urtetik



Aurtengo egoera ikusita, ez dira igerileku ikastaroak egingo.

beherako haurrek, heldu batekin joan beharko dutela azaldu du Udalak.

### Hainbat segurtasun neurri, Covid-19a dela eta

Astigarragako Udalak, hainbat neurri ezarri ditu, herritarren eta bertako langileen segurtasuna bermatzeko, eta honakoak dira, besteak beste; «Covid-19aren sintomak izanez gero, ez etorri». Kiroldegira sartzeko desinfezio neurriak bete. Sarrera eta irteerako jarraibideak errespetatu. Segurtasun distantziak mantendu. Maskarilarekin sartu behar da instalazioetan, hala

ere, igerileku esparruan ez da derrigorrezkoa erabiltzea, «baldin eta 1,5 metroko distantzia mantentzen bada». Ez partekatu objektuak beste pertsonekin. Zaindu adingabeak baldintzak bete dituzten eta beste erakunde ofizialek emandako osasun neurriak». K

## Iñaki eta Xuma izan dira Kronika eta Dobera taldeko 'Egunean Behin' lehiaketako irabazleak

Lehenengo postua, Iñakik lortu du, eta bigarrena berriz Xumak. Hirugarren postua, zozketa bidez izan da eta Eiderri egokitu zaio.

### URUMEA EGUNEAN BEHIN

Aurreko astean, Egunean Behin jokoa, denboraldiko azken astean sartu zen. Hau aprobetxatuz, Kronika eta Doberak, lehiaketa bat jarri dute martxan, eta jadanik hiru irabazle daude. Lehenengo bi postuak sailkapenaren arabera izan dira, eta hirugarrena berriz zozketa

bidez aukeratu da.

Lehenengo postua Iñakik lortu du, 551,19 punturekin. Eta honako sari hauek eramango ditu etxera; Errigora produktuen lote bat, Dobera elkartearen liburuen pack-a eta Kronikan zorianzate bat jartzeko aukera. Bigarren postua, Xumarena da, 546,07 punturekin, eta honeko sari hauek lortu ditu; Sagardo

kaxa bat eta Kronikan zorianzate bat. Zozketaz emandako saria, Eiderrentzat izan da, asteko sailkapenean 105.postua lortu du, 375,01 punturekin. Errigora produktuen lote bat eta Doberako liburuen pack-a izango ditu eskuragai.

Sarrituek Kronika eta Doberarekin jarri beharko dute kontaktuan. Helbide elektronikora idatziz [dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus) edo [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)-era edo telefono hauetara deituz: 943 33 27 99 (Dobera) edo, 943 33 08 99 - 688 660 714 (Kronika). K



Hauek dira, irabazleek jasoko dituzten sarietako batzuk.



ANTZIOLA, 3  
943 55 17 91  
HERNANI

**ANTZIOLA**  
OKINDEGIA



Amaia  
arrandegia

Arrainak  
Itsaskiak  
Fresko eta  
izoztuak

943 55 07 52 / 650 53 87 72  
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI



Allianz   
ASEGURUAK

bizitza -  
lurrik -  
ibilgailuak -  
etxeak -  
komertzioak -  
enpresak -  
ardura zibila -  
finantz aseguruak -  
inbertsiok -

agustin ezponda irizar  
agentzia

Nagusia, 13  
Telf.: 943 55 73 26  
Faxa: 943 33 57 71



OINDI

taberna

NAGUSIA, 25  
HERNANI  
943 557 509



**GAUR** Tenperaturaren igoera eta arratsaldean trumoi-ekaitzerako joera. Goizean zerua garbi egongo da eta hego-ekialdeko haizea ibiliko da, beraz tenperaturak nabarmen egingo du gora. **Min.14° / Max.26°**

**BIHAR** Bihar, tenperaturaren jaitsiera eta euri pixka bat. Goizaldean zaparrada trumoi-suren bat bota dezake. Goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira. **Min.16° / Max.23°**

**DOBERA** EUSKARA ELKARTEA

**LAGUNTZAILEK**

Hernaniko Udala

Astigarraigako Udala

Ereñotzuko Auzo Udala

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraigako) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraigako) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraigako) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EUROPEAN GOBERNAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

PREZIOA

## Osoko Bilkura egingo da gaur, arratsaldeko 19:00etan hasita

Hernaniko Udalak, Osoko Bilkura bilerarako deia luzatu du, eta gaur da hitzordua, arratsaldeko 19:00etan hasiko da, Pleno aretoan.

**HERNANI** PLENOA

Gaur arratsalderako hitzordua ezarri du Hernaniko Udalak, Osoko Bilkura bilera egiteko. Arratsaldeko 19:00etan emango zaio hasiera Osoko Bilkura bilera honi, Pleno aretoan.

**Gaurko gai-zerrenda**

Hainbat gai jorratzeko asmoa dute, hala nola, maiatza eta ekaineko aktak onartzea, 2020ko dekretuak «702 817ra arte», Hernaniko Udalaren 2019ko kontu orokorren onarpena eta barne kontrolen txostena,

2020ko Hernaniko eta Ereñotzuko Toki entitate Txikiko Udal Plantila Organikoa, eta Lanpostuen zerrendaren aldaketak onartzea, Udal Ondasunen inventarioaren eguneratzea, SOS Arrazakeriak aurkeztutako mozioa, *Orain Ardura* herritarren ekimenaren mozioa, Zinegotzi batek uko egiteko idatzia eta azkenik, ohiko moduan, erregu eta galderak egiteko tartea ere eskainiko da. **K**



Jubeniletan, Apaolaza eta Lasak jokatu zuten atzo.

## Gaur eta bihar ere, pelotariak zita frontoian

Atzo hasi zen Zikuñaga Txapelketaren bigarren edizioa, eta bertan jokatu ziren lehenengo partidua. Gaur ere, arratsaldeko 17:30etan hasiko dira partidua, frontoian.

**HERNANI** PELOTA

Atzo eman zitzaion hasiera Zikuñagako Txapelketaren bigarren edizioari. C.D.Hernanik antolatu du torneoa, *Papelera Guipuzcoana Zikuñaga* enpresaren babesarekin. Aurtengo parte-hartzea oso handia izan

da, 51 izango baitira atzotik larunbatera kiroldegiko frontoian partidua jokatu dituzten bikoteak, uztailearen 25a arte.

Atzo, Kadete 1º mailakoek ez zuten aukerarik izan jokatzeko, aldiz alebin, Jubenil 1º eta Nagusi 2º mailakoek ez zuten aukerarik galdu.

Gaurkoan, Infantiletan Xuban Iturbe eta Oier Azpeitia izango dira; Kadeteetan Arluizaga eta Alegria, Urdangarin eta Saralegiren aurka; Jubeniletan Olaizola eta Orbegozok, Migeltorena eta Uria izango dituzte aurkari; eta Nagusietan Taberna eta Mitxelenak, Gabirondo eta Elolaren aurka jokatu dute. **K**



Aurten ez da horrenbeste jende egoteko aukerarik izanen, baina hala ere, Umore Ona Elkarte irekita egongo da.

## Bihartik aurrera Umore Ona Elkarte irekita egongo da

Covid-19ak eraginda, Goizuetako Umore Ona elkarte itxia egon da. Hala ere, egungo egoera ikusita, bihartik aurrera ateak irekiko dituztela jakinarazi dute elkartekoek.

**GOIZUETA** UMORE ONA ELKARTEA

Covid-19aren ibilbidean, hainbat establezimendu itxia mantendu dira, eta egoerak aurrera egin ahala asko «normaltasunera» itzuli dira. Haietako bat izango da Goizuetako Umore Ona Elkarte, izan ere, bihartik aurrera, elkarte irekiko dute, «betiere legeak dioen araudia betetzen bada».

Hori kontutan hartuta, elkartekoek, zenbait ohar helarazi nahi izan dizkie elkartera bertaratzeko asmoa dutenenei. Bi multzotan banatu dituzte arauak, alde batetik, goiko solairuko elkartearen arauak daude, eta beste aldetik, beheko solairuko elkartearen (azoka) arauak.

**Goiko solairuko elkartearen arauak**

Erreserbak guxtienez aurreko

egunean egin behar direla jakinarazi dute, eta «arbelean apuntatzea derrigorrezkoa izanen da». Bazkide izenarekin batera, biltzekoak diren pertsona kopurua zehaztu behar da. Bazkide bakoitzak gehienez 10 pertsonako erreserba egin dezake, gainera mahaiak ezin dira lekuz mugitu. Goiko solairua ezin da otorduz kanpo erabili. Sukaldean gehienez 4 pertsona egon litezke, eta distantziak mantenduz. Soberan geratzen den janaria ezin da hozgailuan gorde. Pilaketak saihesteko, «mostradorean ezin izanen da tragorik hartu». Otordua egin ostean, erabilitako mahaiak, aulkiak... desinfektatu egin behar dira. Goiko solairuan egiten diren urtebetetze festak debekatuta daude. Garbitzaileak jai duen egunetan, hau da «astelehen eta asteartean, elkarte itxita egongo da». Komunean

gehienez, pertsona bat egon liteke, eta erabili ondoren komuna garbitu behar da. Azkenik, teletesteko aretoa itxita egongo dela ere azaldu dute Umore Ona Elkarteok.

**Beheko solairuko elkartearen (azoka) arauak**

Goiko solairuko elkartean bezala, arautegia edo legea ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioak, bazkideak jasango ditu. Beheko solairuko elkartea gainera, edariak kanpoko mahaietara zerbitzatzeko erabiliko da. Azoka, «ezindunek erabili ahal izango dute otorduak egiteko» eta bazkide bakoitzak gehienez 10 pertsonako erreserba egin dezaketela ere adierazi dute. Sukaldean gehienez 2 pertsona egon litezke, segurtasun distantziak mantenduz. Elkarte barruan edariak hartu eta bertan edatea debekatuta dago. Gehienez 2 pertsona egon litezke edariak prestatzen. Erabiltzen diren tresnak eta komuna ere desinfektatu egin behar dira. Terrazako ordutegia, gaueko 00:00ak arte izango da. **K**

## Ostiral eta larunbatean, zinea kalean

**HERNANI** ZINEA

Ostiral eta larunbat honetan, bi zinema emanaldi eskainiko dira udako programazioari hasiera emateko. Ostiralean, gaueko 22:00etan, *Leo da Vinci*, *Monalisa misioa* eskainiko da, 6 urtetik gorakoentzat, eta larunbatean berriz, *Los miserables*, helduentzat, eta hauek ere gaueko 22:00etan. Emanaldiak, Atsegindegin izango dira, eta doakoak dira, baina aurrez, gonbidapena eskatu behar da Biterin.

## IRAGARKI MERKEAK

Astigarraigako sagardotegi batean lan egiteko zerbitzari bat behar da. Urte osoko lana.

Idatzi: [landepartamendua@gmail.com](mailto:landepartamendua@gmail.com)

19 urteko neska umeak zaintzeko lan bila, esperientziarekin. Deitu: 688 697 001

Itziago Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

